

herrera-bidebieta

Kaifas taldea Bidebietako seikote batek osatzen du. 1992. urtean, Joseitok eta Toñok («Fuego» eta «Basura» taldeetako partaide ohiak) historia berri baten lehen orrialdea idatzi zuten, beranduago historia honi, pelikula batetik ateratako «Kaifas» izena ematea bururatu zitzaien. Poliki-poliki talde hau kontsolidatzen joan da, Carlos eta Toni sartu ziren eta gaur egun 6 lagunez osatutako taldea dugu.

Zenbait kanta gai idatzi ondoren Donostiako Iñaki Lucas Estudioekin kontaktuan jarri eta lehenengo maketa grabatu zuten, «Me domina el Rock'N Roll» izenburuarekin. Maketa honen salmenta izugarria gertatu zen eta egoera berri honen taldearen kontzertu zirkuituak ere aberastu egin zituen, honela, Soria, Guadalajara eta Errioxan barrena eraman dute beraien musika.

Gaur egun, bere lehen diska prestatzen ari da Kaifas taldea, aurtengo martxoa edo apirila bitartean kaleratuko dutena alegia.

Kaifas Rock taldea diskoa prestatzen



1994. urteko uztailearen 23an kontzertu garantzitsuena etorri zitzaien eskura, hain zuzen Biko Spirit Jaialdian Rolling Stones taldeko partaide ohiaren Mick Taylor eta Cojon Prieto y los Huojolotes taldearen aurretik jo zuten.

altza

Altza Javier Etayoren begietan

Javier Etayo margolari donostiarrak ikusgai jarriko ditu bere lanak Casarçs Kultur Etxean.

«*Altzatik paseatuz*» erakusketa honetan agertutako lanak Javier Etayok berak egindakoak dira. Javier Etayok 26 urte daramatza Altzan bizitzen.

Bere ogibidea aitzakiatzat harturik, aspaldidanik kolorea eta marrazkia gertu-gertutik bizi izan ditu, baina ez du sekula margotu. Oraingoan Javier

rrek errealtate berri bat ezagutu nahi izan du, eta pintzela hartuz, Altzako egoera ezberdinak margotzen hasi da. Berak dioenez, «*Altzatik zehar ibiltzeko modu ezberdin bat eskaintzen dut*».

Erakusketa urtarrilaren 24ra arte izango dugu ikusgai astelehenetik ostiralera Darieta Bidearen lehenengoan, 17.30etatik 21.00etara.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

Gazte Lekuak

antolatutako Serigrafia tailerra hasi da dagoeneko. Urtarrilaren 11etik apirilaren 5era arte bilduko dira asteazkenetan 17.30etatik 20.30etara tailer honetan izena eman duten gazte gustiak.

ILEAPAINDEGIA



Larratxo, 94
Tfnoa.: 35 71 66

HIPER LARRATXO

Opariak
Barruko Arropa
Tresneriak Jostailuak
Bisuteria

Bertsolari Txirrita 10 ☎ 40 05 95 DONOSTIA